

2064/2023 EBAZPENA, 2023ko irailaren 22koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako errektoreordeak emana. Haren bidez, ikertzaileen lan kontratazioa egiteko hautaketa-prozesurako deia egiten da, jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez honako ikerketa-proiektu hau garatzeko: “PID2020-113125RB-I00”.

2023ko irailaren 21ean, Ikerketa Zerbitzuak ikertzaileak kontratatzeko hautaketa-prozesurako deia egiteko eskatu zuen, jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez “PID2020-113125RB-I00” ikerketa-proiektua garatzeko, proiektuko lankide gisa. Ikerketa-proiektuaren ikertzaile arduraduna María Dolores Ugarte Martínez da, unibertsitateko katedraduna, Estatistika, Informatika eta Matematika Sailari atxikia.

Kontuan harturik Langileria Kudeatzeko Ataleko buruak egin duen proposamen txostena, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak ontzat eman duena.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak errektoretza-taldearen egitura orokorra onetsi eta bere funtzioak zehazteko 2023ko ekainaren 20an eman zuen 1306/2023 Ebazpenaren bidez eskuordetu dizkidan eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

Lehenbizikoa.- Hautaketa-prozesurako deialdia onestea, ikertzaileen lan kontratazioa egiteko “PID2020-113125RB-I00” ikerketa-proiektuarekin lotutako jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez, baita deialdiaren oinarriak ere.

Bigarrena.- Ebazpen hau Hautaketa Batzordeko kideei eta Ikerketa Zerbitzuari aditzera ematea.

Hirugarrena.- Agindua ematea ebazpen hau Unibertsitatearen iragarki ohol elektronikoan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

Iruñean, 2023ko irailaren 22an

Francisco J. Arregui San Martín
Ikerketako errektoreordea

IKERTZAILEEN LAN KONTRATAZIOA EGITEKO HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA HONAKO IKERKETA-PROIEKTU HAU GARATZEKO: "PID2020-113125RB-I00"

Hauek dira deialdia arautuko duten

OINARRIAK

1.- DATU OROKORRAK

-Deialdiaren xedea: deialdi honen xedea ikertzaileak hautatzea da, ondoren lan kontratazioa egiteko, jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez, ikerketa-proiektu hau garatzeko: "PID2020-113125RB-I00".

-Maila profesionala: proiektuko lankidea, batez ere ikerketa-lanetan aritzeko.

-Eginkizunak: estatistikaren programazioa eta eredu estatistikoen analisia.

-Kontratu mota: jarduera zientifiko-teknikoen kontratuaren modalitatearen bidez egingen da kontratazioa, Zientziari, Teknologiarri eta Berrikuntzari buruzko 2011ko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 23bis artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

-Iraupena: mugagabea, "PID2020-118014RB-I00" ikerketa-proiektuari lotua.

-Lanaldi mota: osoa.

-Ordainsariak: Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikertzaileak Kontratatzeako Arautegiak bere eranskinean ezarritakoak, 2022. urtera egokituak; arautegi hori 2017ko maiatzaren 3ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez onetsi zen, eta 2022ko apirilaren 12ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez aldatu.

Diru-gehigarriak ordaintzeko aukera egonen da, proiektuan ezarritako helburuak betez gero. Diru-gehigarri horiek ordaintzeko, proiektuaren arduradunak ordainketa justifikatzen duen azken txosten bat egin beharko du, eta aurrekontuan diru kopuru nahikoa izan beharko da.

-Finantzaketa: MCIN/AEI/10.13039/501100011033.

-Argitaratzeko tokiak: deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gainera, deialdiarekin lotutako egintza eta ebazpen guztiak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki ohol elektronikoan argitaratuko dira.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

2.1.- Hautaketa-prozesuan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako herritarra izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa izatea edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiar Estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen batekoa.

Halaber, Espainiako, Europar Batasuneko estatuetakoa eta aipatu nazioarteko itunak aplikatzen diren eremuko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek parte hartzeko aukera dute, betiere zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude; herritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere parte hartzeko aukera dute, zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude, baldin eta 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Halaber, aurreko paragrafoetan sartuta ez dauden herrialdeetakoak izan eta Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrek administrazio publikoetako lan kontratupeko langile aritzeko aukera izanen dute. Espainian bizi ez diren atzerritarrek parte hartzeko aukera izanen dute, betiere parte hartzeko betekizunak betetzen badituzte. Kasu horretan, atzerritarrei buruzko legeek eskatzen dituzten baimenak lortu beharko dituzte kontratazioa egin ahal izateko.

b) 18 urte baino gehiago izatea, eta erretiro adina betea ez izatea.

c) Gutxienez ere 300 ECTS dituen Graduak irakaskuntza titulazio ofiziala, Masterra, Lizentziatura, Arkitektura, Ingeniaritza edo hezkuntza alorrean eskuduna den ministerioak ezarri duenaren arabera, Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko (MECES) 3. mailari (masterrari) dagozkion titulazioak.

d) Deialdiko xede diren lanpostuak betetzea galarazten duen gaixotasunik edo muga fisikorik edo psikikorik ez edukitzea.

e) Diziplinako espediente baten ondorioz edozein administrazio publikotako zerbitzutik baztertua ez izatea, eta ez egotea epai irmo baten bidez ezgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

2.2.- Aurreko arauetan ezarri diren baldintzak eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean bete beharko dira, eta kontratazioa egin arte beteko dira.

3.- ESKAERAK

Eskabideak aurkezteko epea 10 egun baliadun igaro ondoren bukatuko da, deialdi hau **Nafarroako Aldizkari Ofizialean** argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hautaketa-prozesu honetarako **inskripzioa telematikoki** egin beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez, helbide honetan:

<https://sedeelectronica.unavarra.es/sede/zerbitzu-katalogoa/guztiak/ikertzaileen-hautaprobak>

Lehenik, “**Hasi tramitea**” botoia sakatu behar da.

“**Erantsi fitxategiak**” eremuan, dokumentu hauek erantsi beharko dira lanpostu kategoria bakoitzerako:

-Parte hartzeko eskabidea.

-Nortasun Agiri Nazionalaren, AIZren edo pasaportearen fotokopia.

-Deialdian eskatzen den tituluaren fotokopia.

- Espediente akademikoaren fotokopia, batez besteko nota zehaztuta.
- Curriculum vitae, norberak egoki jotzen dituen merezimenduen egiaztagiriek batera.

Parte hartzeko eskabide eredua esteka honetan dago:

<http://www2.unavarra.es/gesadj/registroGeneral/instancias/recursos-humanos/contratacion-personal-investigador.pdf>

4.- IZANGAIEN ONARPENA

4.1.- Eskerak aurkezteko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da, baztertua izateko arrazoiak esanez, baztertuen kasuan. Izangai bazterturik ez bada, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

4.2.- Hirugarren oinarriak aipatzen dituen dokumentuak ez aurkezteagatik behin-behinean baztertzea galarazi gabe, eskaera epez kanpo aurkeztea edo lehiaketaren bidez lortu nahi den lanpostua betetzeko bete behar diren baldintzak ez betetzea baztertzeko arrazoiak izanen dira, eta, gainera, ezin izanen dira zuzendu.

4.3.- Izangai baztertuek edo zerrendan azaldu ez direnek zilegi dute erreklamazioa egitea eta, akatsen bat badago, akatsak zuzentzea, behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo 5 egun balioduneko epean. Ezartzen den epean baztertuak izateko arrazoiak konpontzen ez duten izangaiak behin betiko baztertuko dira, eta ez dute probarik egingen.

4.4.- Eskerak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

4.5.- Izangaiak hautaketa-prozesuan onartuen zerrendan egoteak edota 6.2 oinarriak aipatzen duen hautaketa-prozesua gainditu dutenen zerrendan egoteak ez du ekarriko inoiz ere unibertsitateak aitortzea betetzen dituztela deialdiko oinarrietan eskatu diren baldintza orokorrak edo bereziak. Kontratatzeko deitzen dituzten izangaiek ziurtatu eta egiaztatu beharko dituzte horiek, jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko baitute kontratua sinatzen dutenean.

4.6.- Parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioarekin alderaturik jatorrizko dokumentazioa okerra edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, kontratua sinatzeko ezintasuna eta kontratazio zerrendatik baztertzea ekarriko du, interesdunak berak sinatuko duen erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorritik.

5.- HAUTAKETA-PROZESUA

Izangaiei merezimenduak baloratuko dira, aurkeztutako dokumentazioarekin bat etorritik eta I. eranskinen baremoaren arabera.

Izangaiek eskabideak aurkezteko epea bukatzean dituzten merezimenduak bakarrik baloratuko dira, eta gero lortutakoak ez dira kontuan hartuko. Hautaketa Batzordeak inola ere ez du onartuko izangaiek alegatu ez duten edo agirien bidez frogatu ez duten merezimendurik, eta ezin izanen du apartatu bakoitzean adierazitako gehieneko puntuazioa baino handiagorik eman.

Adierazten diren merezimendu guztiak zuzenbidean baliozkoa den edozein baliabideren bidez frogatu behar dira.

Hautaketa Batzordeko kide bakoitzak baloratuko ditu izangaien merezimenduak. Azken puntuazioa izangai bakoitzari emandako puntuazioen batezbestekoa izanen da.

6.- HAUTAKETA-PROZESUAREN EBAZPENA

6.1.- Izangaiek aurkeztutako merezimenduen balorazioa amaitu eta gero, Hautaketa Batzordeak Ikerketako errektoreordeari bidaliko dio hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazioekin.

6.2.- Ikerketako errektoreordeak ebazpena emanen du hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda onesteko, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki ohol elektronikoan argitaratuko da.

6.3.- Deialdi honetan sortzen den kontratazio zerrendak 3 urteko indarraldia edukiko du argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Indarrean dagoen bitartean, kategoria bera eta ia eginkizun berak dituzten langileak kontratatzeko premia sortzen denean ere erabiltzen ahalko da kontratazio zerrenda hori, proiektu, kontratu, hitzarmen edo katedra baterako edo institutuko edo ikerketa-taldeko funtsetarako izan, betiere hurrenkera ordena errespetatuz.

6.4.- Deialdi honen ondoriozko kontratazio zerrendan egonik kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste edozein lanpostutarako kontraturik eskainiko. Dena dela, eskainiko zaie baldin eta kontratua bukatzeko 15 egun edo gutxiago gelditzen badira.

7.- HAUTAKETA-BATZORDEA

Batzordeburua: Ana Fernández Militino doktorea, unibertsitateko katedraduna, Estatistika, Informatika eta Matematika Sailari atxikia, Ikerketako errektoreordeak delegatua.

Idazkaria: María Dolores Ugarte Martínez doktorea, unibertsitateko katedraduna, Estatistika, Informatika eta Matematika Sailari atxikia.

Batzordekidea: Tomás Goicoa Mangado doktorea, unibertsitateko katedraduna, Estatistika, Informatika eta Matematika Sailari atxikia.

ORDEZKO HAUTAKETA-BATZORDEA

Batzordeburua: Jaione Etxeberria Andueza doktorea, kontratupeko irakasle doktorea, Estatistika, Informatika eta Matematika atxikia.

Idazkaria: Aritz Adin Urtasun doktorea, kontratupeko irakasle doktorea, Estatistika, Informatika eta Matematika Sailari atxikia.

Batzordekidea: Guzmán Santafé Rodrigo doktorea, kontratupeko irakasle doktorea, Estatistika, Informatika eta Matematika Sailari atxikia.

Hautaketa Batzordearen jarduerak, une oro, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore

Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezartzen dutenaren arabera gauzatuko dira. Jakinarazpenak egiteko eta bestelako gorabeheretarako, Hautaketa Batzordearen egoitza Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazioari eta Kudeaketako eraikina izanen da.

8.- DATU PERTSONALEN BABESA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak langileen kudeaketaren arloan antolatutako prozesuetan parte hartzeak interesdunen datuak tratatzea ekarriko du berekin. Datu horien tratamenduaren arduraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoa da.

Datuen tratamendua aplikatzekoa zaion araudiari jarraikiz egingen da, hots, Datuak Babesteko 2016/679 EB Erregelamendu Orokorrari eta Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz. <http://www.unavarra.es> webgunean argitaratutako Tratamendu Jardueren Erregistroan kontsulta daiteke nola egingen den tratamendu hori, "GIZA BALIABIDEAK" atalean.

Tratatuko diren datuak batez ere hautaketa-prozesuetako izangaiak eta NUPeko langileenak izanen dira; hauek hain zuzen ere: izena, deiturak, NANA, datu akademikoak eta profesionalak eta, beharrezkoa denean, bankuko datuak eta Gizarte Segurantzakoak, edo ondoren deskribatzen den xedea betetzeko beharrezkoak direnak.

Datuen tratamendua justifikatzen duen xedea hau da: hautaketa-prozedurak, mugikortasunekoak, egoera administratiboak, ziurtagiriak, edo Giza Baliabideen arloan NUPen eskumenekoak diren beste batzuk tramitatzea.

Xede horrek interes publikoa edo botere publikoa legitimatzen du, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua ezartzen duen bezala. Hauek dira oinarri juridikoak, langileei buruzko beste arau batzuen artean: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2015eko urriaren 30ekoa, eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzura dauden Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, 1993ko abuztuaren 30ekoa.

Datuak tratatzeko jardueri dagokienez, interesdunek eskubidea dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke, mugatzeko, haiei kontra egiteko eta transferitzeko. Horretarako, mezu bat bidali behar dute delegado.protecciondatos@unavarra.es helbidera, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 11. artikulutik 18. artikulura bitartekoei jarraikiz. Desadostasunen bat izanez gero, Datuak Babesteko Espainiar Agentziara jo dezakete, <https://www.aepd.es/> domeinuaren bidez.

9.- ERREKURTSOAK

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, Unibertsitate Sistemari buruzko 2023ko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 38.4 artikulua ezartzen duenaren arabera, eta zilegi da berraztertzeke errekurtsua jartzea, errektoreari zuzendua, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, hilabeteko epean lehenbiziko kasuan, eta bi hilabeteko epean bigarreanean, biak ere ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

I. ERANSKINA

Ikertzaileak hautatzeko baremoa

ERABILIKO DEN BAREMOA ETA/EDO EGINEN DIREN PROBAK	
1. APARTATUA: Espediente akademikoa	Puntuak 30.-
<p>Espediente akademikoa bere batez besteko puntuazioari dagokion proportzioan baloratuko da, gehienez ere 10 punturekin.</p> <p>Titulazio hori 300 ECTS edo gehiagoko gradua/lizentziatura edo ingeniari-tza bada, 10 puntu lortuko dira gehienez ere.</p> <p>Aurkeztutako titulazioa 300 ECTS kreditura ailegatzen ez bada (gradua, ingeniari-tza tekniko...) baina izangaiak unibertsitate master bat ere baldin bada, 10 puntura bitarte lortzen ahalko ditu, proportzioan, aurretiazko titulazioaren eta masterraren ECTS kredituen kopuruaren portzentaje erlatiboa aintzat hartuz.</p> <p>Bi kasuetan, ateratzen den puntuazioa 3 faktorearekin biderkatuko da baldin eta izangaiak honako titulu-tako bat bada: Matematikaren edo Estatistikaren arloko lizentziatura/ingeniari-tza/gradua/ingeniari-tza tekniko/unibertsitate masterra; 1 faktorearekin antzeko titulazioa teknologikoak badira; eta 0,5 faktorearekin beste titulazio bat bada.</p> <p>Titulazio bakoitza dagokion faktorearekin biderkatuko da.</p>	
2. APARTATUA: Proiektuetan/kontratu-etan parte hartzea	Puntuak 30.-
<p>-Estatistikaren/matematikaren arloko ikerketa-proiektuetan edo kontratu-etan parte hartu izana: 1 puntu kontratuaren hilabete bakoitzeko, eta 30 puntu gehienez. Hilabetetik beherako aldiek, berriz, ez dute jasoko puntuazio proportzionala.</p>	
3. APARTATUA: Argitalpenak	Puntuak 20.-
<p>-Argitalpen zientifikoak: 5 puntu emanen dira Matematikaren edo Estatistikaren arloko argitalpen bakoitzeko, eta gehienez ere 20 puntu.</p>	
4. APARTATUA: Elkarrizketa pertsonala	Puntuak 20.-
<p>Aurreko apartatuak batuta gutxienez ere 40 puntu lortu dituzten hiru izangaiak bakarrik eginen zaie elkarrizketa; elkarrizketan, izangaiak deialdiaren xede den kontratuaren eginkizunak betetzeko gaitasuna ote duen baloratuko da.</p>	

Hautaketa-prozesua gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa 45 puntu da. Hautaketa-prozesuaren azken emaitzan gerta daitezkeen berdinketak 4. APARTATUAN puntuazio handiena atera dutenen alde ebatziko dira. Berdinketarik baldin badago, 2. APARTATUAN puntuazio handiena lortzen dutenen alde. Berdinketak jarraitzen bada, hautaketa-prozesua zozketaz erabakiko da.